

ASTIALDIA > EUSKAL HERRIKO TXOKOAK



Arte topaketak egiteko ohitura hartu dute artista batzuek. Hemen, txalaparta saio bat kobazuloaren oihartzun paregabearekin. BOB EDME



Zaldi baten irudia, Otsozelaiko harpeko marrazkirik ez

bria, Ebro eta batzuetan ekialdeko Pirinioen artean zeukala beren bizi eremua, Izturitze bidegurutze nagusietako bat zuen. Tarte horretan Santimamiñetik ere pasatzen zen, segur aski.

Gaur egun, Arberua errekek zizelkatua duen obra denen eza-gun bihurtu da. Seinaleak salatzten hasten dira Baionatik atera orduko. Baxe Nafarroaren barrenean, 55.000 jende ibiltzen da urtero, gehienak udan, nola ez. Baina azaro erditsutan, aitzinetik deituz baizik ez dira bisitatzen ahal kobazuloak. Lekuaz gozatzeko unerik egokiena, lagunuen artean nahi baldin bada.

Seinaleak ahantzirik, naturak egiten du ongietorria Donamartiriri. Herria pasatu eta, bide xume batek eramaten du harpeetara. Horien sarrera bat-batean agertzen dira. Oharkabea. 1913. urtean harpeen balioaz ohartu ziren bezal-bezala. Eta Izturitzeko harpeak atek zabaltzen ditu. Orotara hiru kobazulo daude, hiru solairuetan. Lehena, Izturitzekoa. Otsozelaikoa da bigarrena, eta azkena, Erberua deitzen dena.

Mendiaren barrenean sartzeko inpresio bitxia. Historiaurreak interesaturik ez doanak, naturaren bitxikeria nabardenduko du. Korapiloa tripan. Urduritasuna. Zientifikoki, interes handia du lehen kobazulo honek. Harkaitz gainean, baxuerliebean eginko hainbat irudi daude. Elur orein baten irudia ezagutzen da. Beste bospasei irudi ere daude, baina nehorik ez du aurkitu haien zentzua. Historiaurrekoak ez izatea ere baliteke. Burua hamaika bideetan galdurik, Otsozelaiko katedralera helzten da.

Katedrala isila. Urrats bakoi-tzak bere oihartzuna du. Begiek

Uraren obra, gizakiaren egoitza

Izturitzeko eta Otsozelaiko harpeek naturaren ikusgarri miresgarriena eskaintzen dute, Baxe Nafarroaren barrenean.

XAN AIRE
Donamartiri

Altxor arraroenak ez omen dira errazak aurkitzeko. Donamartiriko Darricau familiak luzaz izan du altxor erraldoia bere

eskuetan. Bere lurretan. Zangopetan. Begien aitzinean. Sudur puntan. XIX. mende bukaera arte, orain Izturitze eta Otsozelai izendatuak diren harpeei ez zieten nehorik ere kasurik egiten. Gaztelu tontorren eskualdean, harpeak bazirela, anitzek zekiten, hori bai. Eta zer? Zer ekartzen ahal du lurrean dagon zulo batek? Arroka? Horrek ez du nehor ere bizi-razten. Saguzarren erresuman, ilunbean, zer aberastasun izaten ahal da? Gauza bakarra: lurra. Saguzarren goroztari esker, preskeski, lur paregabea biltzen zuten

garaian. Baina lur hura karrakatu ahala, sekulako bitxikeriak biltzen hasi ziren. Harri batzuk, labanak bezain zorrotzak... Hezurak. Historiaurrekoak ote? Ikerlariak aurkeztu zizkieten aurkitutakoak. Eta ikerlariak, harrituak. 1913. urtean, indusketa kanpaina bat hasi zuten harpeetan. Emaitzen arabera, gizakia 8.000 urtez bizi izana zen haitzuloetan.

Aurignacian kulturako Cro Magnon gizonak (-40 000 / -26 000 k.a.) egoitza paregabea zeukan Izturitze eta Donamartiri herrien arteko harpeetan. 2.500 metro koa-

droko eremua, ekialdera so, ibar osoa ikus zezakeen handik. Urtean bi hilabete pasatzen zituen han. Nomada zela, Aturriko ordokiaren eta Pirinioetako mendietako bidean hortxe gelditzen zen, ehizan aritzeko. Zaldiak hortik pasatzen baitziren udaberrian, mendien arteko hertsidurez baliatuz, gune estrategikoa, hots, haien harrapatzeko. 37.000 k.a. aldera iritsi ziren bertara. Eta 8.000 urte pasa zuten hor, erritmo berean. Hortik, aztarnak gutxituz doaz bigarren hotzaldiagatik lekuz aldatu baitzuten iduriz. Kanta-